

GLADYS DEL ESTAL SARIA 2024

- OINARRIAK -

1. Helburua

Gladys del Estal saria UPV/EHUko Informatika Fakultateak eta PUNTUEUS Fundazioak Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako Organoaren babesa eta DanobatGroup-en laguntzarekin, sustatuko dute ingurune digitalean ari diren emakume gazte euskaldunak saritu, gazteentzat erreferenteak sortu eta lan hori jendarteratzeko, Gladys del Estal informatikaria gogoratzearekin batera.

Sari hauek emakumeak esparru teknologikoan sartzea sustatzen dute, presentzia areagotzen dute, ingurune digitalean lan egiten duten emakumeen funtsezko zeregina aitortzen dute eta, azken finean, gizarte digitalaren eraikuntzan berdintasun-irizpideekin parte hartzea sustatzen dute helburu hauekin:

- Emakumeek ingurune digitalean lanbide, enpresa eta ikasketa munduan duten funtsezko zeregina aitortzea.
- Emakumeek garatutako ibilbidea saritu eta emakumezko erreferenteen proiektzioa bultzatzea.
- Etorkizunean STEAM diziplinetara bideratu ala ez zalantza egiten duten neska eta nerabeei erreferenteak eskaintzea.

2. Hautagaitzak

Saria emakume gazteei zuzenduta dago, gehienez 40 urtekoak, bere ibilbideaz gain aurrera begira duten proiektzioa kontuan hartuz.

- Eremua: Hautagaiak euskal herritarrak izango dira, edota, haien jarduna Euskal Herrian burutu dutenak.
- Adin tartea: Gazteei zuzendutako saria denez gehienezko adina 40 urte izango da.
- Hautagaitzak: Hautagaiak bere burua aurkez dezakete sarira, baina erakunde, enpresa edo norbanako batek ere proposatu ahalko du hautagaiaren izena eta bere merezimenduak azaldu. Era berean, epaimahaiak ere aurkez ditzake hautagaitzak.

3. Sariak eta konpromisoak

Irabazleak jasoko duen saria 4.000 eurokoa izango da, eta hainbat konpromiso ekarriko ditu bere aldetik:

- Bideo laburra: Irabazleak bere jarduna azaltzen duen bideo laburra grabatzea antolatzaileek gazteen artean zabaltzeko.
- Ikasleei hitzaldi motibatzaileak: Antolatzaileekin adostutako eskola batean eta Kaixomundua.eus lehiaketaren sari banaketan hitzaldi bana ematea.

Epaimahaiak hautagaiak proposatu, sariak ex aequo eman, ohorezko aipamenak eman edo saria eman gabe uztea erabaki dezake.

4. Epaimahaia eta irizpideak

Epaimahaia ingurune digitaleko adituek osatuko dute, eta PUNTUEUS Fundazioak eta EHUko Informatika Fakultateak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako Organoaren onespenerekin, izendatuko du.

Epaimahaiaren erabakia sariak banatzeko ekitaldian jakinaraziko da jendaurrean. Hala ere, antolatzaileek aurretik izango dute erabakiaren berri, eta parte-hartzaileei ere esango zaie, ekitaldiaren egunera arte isilpean gordetzeko konpromisoarekin.

Sari bakarra izango da, baina epaimahaiak honako irizpide hauek izango ditu kontuan:

- Proiekzioa: hautagaiak duen etorkizuneko proiekzioa baloratuko da.
- Ibilbidea: hautagaiak garatu duen ibilbide profesionala baloratuko da.
- Profila: emakumeak ingurune digitaleko sektorean inspiratzeko eta ahalduntzeko profila izatea.

Aurrekoez gain, hautagaiaren lanean eta ibilbide profesionalean euskarak izan duen presentzia ere baloratuko da. Hautagaiaren egoera pertsonalek bere ibilbide profesionalean izandako eragin edo etenaldiak ere aintzat hartuko dira.

5. Aurkezteko prozedura

- Norbere buruak edo hirugarren batek aurkeztu ditzake hautagaitzak Gladys Sarira. Dagokion inprimakia betez aurkeztu behar da webgune honetan: gladyssaria.eus
- Epaimahaiak hautagaitzak ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahalko du. Egiazko informazio kontrastagarririk ez dutenak bazter utziko dira.
- Epaimahaiak ez du lehiaketara aurkeztutako hautagai-zerrenden edukiaren gaineko inolako legezko erantzukizunik.
- Hautagaiak aurkezteko azken eguna **2024ko ekainaren 20a** izango da.

6. Azken klausulak

- Oinarrietan jaso ez diren gai eta gertakariei dagokienez, PUNTUEUS Fundazioak, EHUko Informatika Fakultateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako Organoak izango dute erabakitze eskubidea.
- Sariketa honetara aurkezteak esan nahi du oinarri hauek guztiak onartzen direla.

7. Datuen babesa

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren arabera (EB 2016/679 Araudia), bildutako datu pertsonalak "Gladys del Estal" tratamenduan sartuko dira. Tratamendu hori PUNTUEUS Fundazioaren ardura da, eta Gladys del Estal Sarien deialdia kudeatu eta tramitatzea du helburu.

Proposatutako pertsonen datuak epaimahaiko kideei jakinaraztea aurreikusten da. Proposamena egin duten enpresa edo erakundeei dagokie beren proposamenetan sartutako pertsonen datuen tratamenduari buruzko informazioa ematea, datu pertsonalak, zein erakunde eta organismori jakinaraziko zaizkien, zein ingurunetan argitaratuko diren eta eragindako pertsonen adostasuna lortzea.

Eragindako pertsonen beren datuak ikusi, zuzendu edo ezabatzeko eskatu, haien tratamenduari aurka egin eta/edo muga eskatu ahal izango dute, eskaera PUNTUEUS Fundaziora bidalita (dba@puntu.eus).